


Europako ekonomia konfiantza berreskuratzen ari da

PMI konposatuaren otsaileko aurrerapenak pentsarazten du Europako ekonomiak konfiantza handiagoko egoera baterantz pausoak ematen jarraitzen duela. Hain zuzen ere, euroaren eremuari esleitutako behin-behineko balioa 51,6 izan da, joan den abuztutik izan duen altuena. Dena dela, ekonomiaren hazkundea oraindik ahula dela iradokitzen du maila horrek. Hauteman den hobekuntza


manufakturen eskutik etorri da, aurreko balioak nabarmen hobetu baitira, 49,1era iritsi arte, hamabi hilabetetan jaso duen daturik onena. Pixkanaka sektore hori hedapen gunera gerturatzen ari da. Bestalde, zerbitzuen indizea (52,8) aurreko aldien antzeko balioetan mantendu zen, egonkortasun nabarmena erakutsiz.

PMI KONPOSATUA. EUROGUNEA


2020ko OTSAILA
51,6




MANUFAKTUREN PMI.EUROGUNEA



ZERBITZUEN PMI. EUROGUNEA




PMI KONPOSATUA. ALEMANIA




Alemania da Eurogunearen hobekuntzan lagundu duten herrialdeetako bat, Frantziaren datu onekin osatzen dena. Eurogunetik kanpo, deigarria da Japonian izandako beherakada handia, batez ere koronabirusak herrialde hartako turismo sektorean pizten duen ezkortasunaren ondorioz. Halaber, nabarmentzekoa da AEBetako ekonomiarekiko konfiantza galera, 50. mailatik jaitsi baita 2013tik lehen aldiz. Aitzitik, Brexit-aren berehalako agertokia argitu ondoren, Erresuma Batuko indizeak nabarmen egin du gora eta 53,3an kokatu da, urtebete eta erdiko epean izan duen baliorik handiena baita.


PMI KONPOSATUA. FRANTZIA



PMI KONPOSATUA. JAPONIA



PMI KONPOSATUA. AEB



Iturria: Markit.

PMI KONPOSATUA. ERRESUMA BATUA

